Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

# *Maria Argialde Azalza*

## *Bergara, Gipuzkoa (1917-2009)*



Aurkibidea

## Biografia



Bergaran jaio zen 1917an. Gurasoak biak Altos Hornosekoak zituen. Bera Bolu baserrira ezkondu zen. Baserriko lanez gainera, errotarekin zerikusia zuten hainbat eginkizun oso gertutik ezagutu zituen, baita egin ere. Gerra garaian urte latzak bizi izan zituzten: errotak itxi zituzten, eta zailtasun ugari pasa zituzten.

## Zintak

### BER-156

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2004-03-10
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

### BER-157

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2004-03-10
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

### BER-166

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2004-05-13
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

### BER-167

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data**: 2004-05-13
- **Iraupena**: 25 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Alberdi Bilbao, Itziar

# Pasarteak

## 1. Umetan neskame egondakoa; orduko lanak

- **Erref**: BER-156/009
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:12:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena**:
<p>Umea zela neskame joan zen; orduan egiten zituen lanak zeintzuk ziren azaltzen du. Arropak nola garbitzen zituen. Erreka etxe ondoan zuten; errota. Ezagutu zituen plantxak nolakoak ziren.</p>

**Transkripzioa**
- Orduan, pixkat danetik ikasi zenduan, ez? Ikasi ein bihar…
- Bai, horixe! Ikasi ein bihar! Ta han ez [zaon] orduan hola brillua etaratzeko gauzaik, e? Ta badakizu zelan danian brillua? Hartu bai zepillua

eskuakin ta belauniko jarri, haintxe, haintxe, hankiakin kantsauta, eskuakin.
- Hori ze izaten zan, brillua etaratzeko egurrari?
- Brillua. Ta argizarixa emoten jakon.
- Eta belauniko?
- Belauniko. Orduan ez [jekanaun] holako katxarrorik… Harek dirudunak zittunan, baiña ez jaukenan holako gauzarik.
- Eta etxia garbitzeko ta erropak garbitzeko ta zer eitten zenduen?
- Zer?
- Baiña beste kriada bat be bazaon, ezta?
- Bai! Ni fan nitzanian haura fuera bialdu ta nik danak eitteko lanak. Erropak garbitzeko badakizu zer?
- Labaduria, labadora, baiña ez labadora katxarro hori ta, e? Zela zan?
- Labaderua.
- Labaderua holakotxe harrixakin. Beste erropa mordo bat zera… izenak be ahaztu ein jatan! Zerak, barreñoiak modukuak baiña beste izen bat zeuken harek. Han ipini beratzen jaboiakin-ta eta jarri han erremangauta ta “venga con la mano, venga allí”, hari “así, así, así y así”, […], e?.
- Bai, bai, bai. Gogorra, orduan, ez?
- Ta gero albergan, aldemenian haura, ta han astindu. Bihurtu ta esei.
- Eta hori ze izaten zan, etxian kanpokaldian itten zenduen?
- Kanpuan, kanpuan, […].
- Eta ura, ur hotza?
- Ur hotza.
- Errekaren bat zeuan bertan ala…?
- Errekia be bertan. Bai.
- Errekako ura aprobetxatzen zan?
- Holaxe moduan. Ez, bestela zeuken harek hartuta ura, errotia zan ta ura asko bihar [zeben]. Presia [zaon] ta presatik.
- Eta, orduan, erropak halan garbitzen zenduezen?
- Halaxe garbitzen zian.
- Eta ze jaboi edo ze edo…?
- Ba, [takua]. Ta holako gauzak eitteko lanera, e! Eta plantxia ein bihar zanian, almohada-azalak lehen zinttekin egoten zien. Ez dakit ezautu dozun…
- Bai, ikusitta bai…
- Ba, harek be [rizau-rizau] einda plantxatzen… bihar nittuan nik. Eta erropa […] eta zer ez.
- Eta plantxia?
- Plantxia plantxiakin.
- Baiña elektrikua […txapakua]?
- Txapan, txapan berotutakuakin.
- Ze eitten zan, txapan berotu ta…?
- Plantxau.
- Ta gero barruan eukitzen zeban, batzuk izeten zien iketza edo zera sartzen jakuela…
- Tximinixa ta guzti.
- Eukitzen zeben plantxak?
- Bai. Baiña haura be, ba, fff!
- Orduan, etxeko jiria hori, ez? Erropak garbittu ta…?
- Erropak garbittu ta koziñia be zeoze bai ta benga lana ta…

## 2. Ogia egiten ikasi zuen; ogi klaseak

- **Erref**: BER-156/010

- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:12:45. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

**Laburpena**:
Ogia egiten ikasi zuen. Hasiera batean ogiaren masa eskuz egiten zen; gerora makina ekarri zuten. Ogia egiteko behar zirenak: ura, hazgarria, irina. Ogi klaseak.

**Transkripzioa**
- Eta ogixa ze… eurak erakutsi zetsuen ogixa eitten?
- Eitten? Harek egunero ein bihar izeten zeben gau ta egun ogixa! Panaderixan hola ein bihar da, e!
- Eta zuk ze eitten zenduan?
- Ba, nik, han, horixe: pisau eta horrek borobildu, ta bestiei emon. Harek [ipintzen zaben], ba, ze tamaiñu ta ze klase.
- Eta pisau ze eitten ziñuan, iriña?
- Pisuekin. Masia indda, e! Hauraxe ekarri zeben gero. Dana eskuan eitten zan, e! Baiña gero ekarri zeben masia eitteko trastioi. Gero makiñiorrekin eitten zan ta orduan hartu ta pisau ta…
- Eta lehlengotik ze eitten zenduen makiña barik masia?
- Aurretik bai, aurretik eskuakin!
- Eta ze… bihar gogorra zan?
- Gogorra? Horixe gogorra!
- Zenbat denpora bihar izaten zan makiñan eitteko?
- Uuu! Denporak be ez dakit, porke asko ein bihar izaten zan ta. Denporak…
- Eta zelan, zelan da? Ogixa eitteko ze bihar izaten da?
- Ura eta zera, altzatzekua, lebaduria. Iriña bota lebaduria dana han urtuta, uretan dana masia ein ta gero beinga! Horixe don ogixa eittia, besterik ez dauka.
- Eta hazgarrixa zelan lortzen… zelan […] zan?
- Hazkarrixak etortzen zien paketetxuan. Oin zela esango dotsut, ba, horrek saldiandakuok etortzen dia, ba?
- Mantekillia moduan…
- Mantekillian-ta moduko kuadrautxuak etortzen zien. Kaja osuek hartzen zien, egunero bihar zan ta.
- Eta erabiltzen zan aurretik eindako ogiren baten masia…?
- Gordeta? Horrek basarrixan eitten zien, e? Han ez, han beti horrekin eitten zan.
- Harek ya, orduan, modernuauak zian, ez?
- Modernuauak ez, hori danak panaderuak ingo zeben.
- […]
- Geuk be horixe itten giñuan ta. Basarrixan hamen eitten giñuanian be geuk be hara juan ta ekarri. Horixe itten giñuan geuk be. Baiña etxian be lagatzen zan…
- Ta ze… ogi desberdiñak zeren, ogi-klase diferentiak ala…?
- Han ez, han dana… antzerakuak eitten zittuen beti: zopakua ta holako… ta bolluak be eitten zittuen, baiña beste, beste klaserik ez.
- Ta zopakua ze ogi zan?
- Zopakua… ez dozu ikusi sekula?
- [Pipia] modukua, baiña [horrek], ez dakizu…
- […]. Haura be ogixan masiakin. Baiña hola ein ta gero ebaitzen zeben ta

gero, ba, “ra!” eskuakin zabaldu ta…

## 3. Inguruko herrietara ere saltzen zuten ogia

- **Erref**: BER-156/011
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:18:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

**Laburpena**:
<p>Labe elektriko handia. Inguruko herrietara banatzen zuten ogia. Hasieran zaldidun gurdiarekin egiten zen banaketa.</p>

## 4. Gernikako bonbardaketa zuzenean bizitakoa

- **Erref**: BER-156/017
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:24:35. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Aisia » Taberna giroa » Kafetegiak eta gozotegiak

**Laburpena**:
<p>Sesmanera (goxotegira) joan zen lan egitera. Bertan zegoela, Gerra Zibila hasi zen. Beldurrez, Gernikara joan zen senide batzuen etxera. Gernikako bonbardaketa bertotik bizi izan zuen. Ganaduen jatekoa egitera joan, eta bonbardaketa hasi zen. Zubipean babesa. Hegazkin bat gertu-gertuan jausi zen.</p>

## 5. Txapelgorri ugari Gernikan

- **Erref**: BER-156/018
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:28:30. **Bukatu**: 00:32:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena**:
Gernikako bonbardaketaren hurrengo egunak zelakoak izan ziren. Soldaduak baserriko ganbaran. "Txapelgorri" ugari etorri ziren Nafarroatik. Soldaduekin harremana nolakoa. Soldaduen eguneroko jarduna. Bilboko ofentsiba.

## 6. Gernikatik itzulera; etxea hutsik eta lanean hasi beharra

- **Erref**: BER-156/019
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:32:30. **Bukatu**: 00:36:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena**:
Gernikatik etxera itzuli zen. Etxea hutsik aurkitu zuen. Bizimodua aurrera ateratzeko egindako lanak. Igandetan, lagunekin zinera joateko dirurik ez, eta arropa garbitzen jardun zuen hainbat etxetan. Gerora, zapata-lantegi batean hasi zen lanean. Telleriarenean, armadarentzako kartutxo-gerrikoak egiten zituzten, besteak beste. Berak egiten zuen lana azaltzen du.

## 7. Telleriarenean lanean kartutxerak egiten

- **Erref**: BER-156/020
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:36:40. **Bukatu**: 00:38:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

**Laburpena**:
<p>Telleriarenean egiten zen lana. Antzuolan larru lantegia zuen eta bertatik eramaten zuten larrua. Prozesua azaltzen du.</p>

## 8. Telleriarenean kartutxo-gerrikoak nola egiten zituzten

- **Erref**: BER-156/021
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:38:40. **Bukatu**: 00:41:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

**Laburpena**:
Telleriarenean egiten zen lana. Kaleko zapatak eta soldaduendako zapatak egiten zituzten. Kartutxo-gerrikoak ere egiten ziren bertan. Nola egiten zituen azaltzen du.

## 9. Lan-baldintzak Telleria lantegian

- **Erref**: BER-156/022
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:41:50. **Bukatu**: 00:46:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

**Laburpena**:
Sasoi oso gogorrak bizi izan dituzte beraien belaunaldikoek. Lantegian emakumezko asko zeuden. Lan-banaketa. Soldata astero kobratzen zuten.

Puntuan bota dute lantegia. Lantegitik etxerako bidean sekulako beldurra pasatzen zuen.

## 10. Josten ere ikasi zuen; garaiko moda

- **Erref**: BER-156/023
- **Iraupena**: 0:04:15. **Hasi**: 00:46:00. **Bukatu**: 00:50:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena**:
Lanorduak. Eloisa Aranzabal jostuna. Josten laguntzen zion; oso harreman ona zuten. Orduko arropak; moda. Alabari jaunartzerako aingeru-soinekoa Mariak berak egin zion.

## 11. "Altos Hornos"eko eskolan ikasitakoa

- **Erref**: BER-156/024
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:50:15. **Bukatu**: 00:50:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
Eskola kontuak. Oso denbora gutxian joan zen; jaunartzea egin arte. "Altos Hornos"eko eskolan ikasi zuen.

## 12. Eskolan ikasitakoa; gehiago ikasi ez izanaren pena

- **Erref**: BER-156/026
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:52:15. **Bukatu**: 00:55:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
Eskolan zer ikasi zuen. "Altos Hornos"eko eskola nolakoa zen. Gehiago ikasi ez izanaren pena izan du beti.

## 13. Gaztetako bizimodua; lana erruz egin behar aurrera egiteko

- **Erref**: BER-156/027
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:55:25. **Bukatu**: 00:57:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

**Laburpena**:
<p>Eloisa jostunarengana joaten zen txokolatea jatera. Ondoren zapata lantegira joaten zen. Etxera joateko orduan, beldurra. Lagunekin zinera joan ahal izateko egin behar izaten zituen lanak.</p>

## 14. Anbrosioren zinea; musika eta dantza

- **Erref**: BER-156/028
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:57:05. **Bukatu**: 01:00:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Kultura » Dantza

**Laburpena**:
Zinera nora joaten ziren; ikusten zituzten pelikulak. Anbrosioren zinera joaten ziren batez ere. Dantzan egitea gustuko zuen. Espoloian eta beheko plazan egoten zen musika. Domeketan Espoloian jotzen zuen Musika Bandak.

## 15. Gaztetako ibilerak: musika eta dantza

- **Erref**: BER-157/001
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

**Laburpena**:
<p>Espoloian Musika Bandak jotzen zuen. San Martin de Aguirre-ren omenezko kanta. Dantza soltea; dantza-lotua. Igandero musika egoten zen, arratsaldez eta gauez. Antxitxiketan etxera afaltzera; morokila jatera. Mutilei kalabazak.</p>

## 16. San Marzialgo erromeria: soinujolea; dantza; meza

- **Erref**: BER-157/003
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:08:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
<p>San Martzialetan erromeriara joaten ziren. Egun handia izaten zen; batzuk goizean goizetik joaten ziren mezara. Burdietan zahagiak eramaten zituzten. Soinujoleak; dantza-korroak.</p>

## 17. Inguruko erromeriak: Asentzio; Elosu

- **Erref**: BER-157/004
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:08:20. **Bukatu**: 00:09:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

**Laburpena**:
Inguruko erromeriak: Asentziokoa; Elosukoa ezagutu zituen. Arratera ere joan zen behin. Antzuolan, Moruen gerra sarritan ikusi zuen. Oinez joaten ziren mendi-erromerietara.

## 18. Umetako jolasak: txingurriska; txirikila; tortolosak

- **Erref**: BER-157/007
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:18:15. **Bukatu**: 00:20:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

**Laburpena**:
<p>Txingurriska; txirikilarekin jolasten zuten umetan. Tortolosetan; kaniketan.</p>

## 19. Inguruko herrietara bizikletaz futbol-partiduak ikustera

- **Erref**: BER-157/008
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:20:00. **Bukatu**: 00:23:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Futbola

**Laburpena**:
<p>Elgoibarrera; Arrasatera bizikletan joaten ziren futbol-partiduak ikustera. Bizikleta alokairua. Loiolara ere bizikletan joaten ziren. Neska eta mutilen bizikletak, desberdinak. Gonak babesteko sarea izaten zuten.</p>

## 20. Bizikletak frenorik ez eta arrautzak apurtu

- **Erref**: BER-157/009
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:23:50. **Bukatu**: 00:26:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
<p>Gizonak irratia, josteko makina eta bizikleta ekarri zizkion Eibartik. Bizikletarekin izandako gorabeherak; auzoko gazteak.</p>

## 21. Inguruko herrietara bizikletaz futbol-partiduak ikustera

- **Erref**: BER-157/010
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:26:35. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Futbola

**Laburpena**:
Futbol partiduak ikustera joaten ziren inguruko herrietara. Agorrosin, Bergarako zelaia.

## 22. Bolu baserrira neskame joan zen; tratua nola egin zuten

- **Erref**: BER-157/015
- **Iraupena**: 0:05:15. **Hasi**: 00:34:15. **Bukatu**: 00:39:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Lanbideak » Neskameak

**Laburpena**:
<p>22 urte ingururekin neskame joan zen Bolu baserrira. Lana nola aurkitu zuen. Tratua berak eta baserriko mutilak egin zuten. Baserriko lanak. Errotako lana.</p>

## 23. Inguruko herrietatik beraien errotara etortzen ziren

- **Erref**: BER-157/017
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:40:10. **Bukatu**: 00:41:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
<p>Morroiaren lana zein izaten zen. Errotan lan ugari egiten zuen. Elgeta eta Partaitti ingurutik ere baserritar asko joaten ziren beraien errotara garia ehotzera. Artairina.</p>

## 24. Baserriko lana eta errotako lana

- **Erref**: BER-157/018
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:41:05. **Bukatu**: 00:42:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
<p>Baserriko lana; errotako lana.</p>

## 25. Ubera errekan errotarako presa

- **Erref**: BER-157/019
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:42:50. **Bukatu**: 00:45:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errotako lana gogorra zen. Presarako ura nondik hartzen zuten. Gerora Bergarako udalak hartu zuen bertako errekako ura. Errotaren historia.</p>

## 26. Errotara garia astoarekin eramaten zuten baserritarrek; errotaren atalak; errotarriak

- **Erref**: BER-157/020
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:45:15. **Bukatu**: 00:48:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errotaren atal desberdinak. Errotarriak kanpotik ekartzen zituzten. Artoa, baba beltza, garagarra, eta abar ehotzeko harria desberdina izaten zen. Harria pikatu egin behar izaten zen lantzean behin. Baserritarrek garia astoarekin eramaten zuten errotara.</p>

## 27. Errotarien lana gerra ostean

- **Erref**: BER-157/021
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:48:00. **Bukatu**: 00:49:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Polizia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena**:
<p>Estraperlo garaian, txandaka lan egin behar izaten zuten errotan senar-emazteek. Gauean joaten ziren baserritarrak garia ehotzera.</p>

## 28. Errotarien irabazia, "lakia"

- **Erref**: BER-157/022
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:49:40. **Bukatu**: 00:52:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Baserritarrek garia astoarekin eramaten zuten errotara. Azula eta Beizu baserrietakoak bertako bezeroak. Errotarien irabazia; "lakia".</p>

## 29. Errotariaren lana: garia, garagarra, artoa, baba beltza ehotzen zuten

- **Erref**: BER-157/024
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:53:45. **Bukatu**: 00:56:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errotariaren lana. Garagarra; baba beltza. Arto ugari ereiten zen inguruan. Arto klase desberdinak. Garia bustita ekarriz gero, arazoak.</p>

## 30. Aste Santuan Elgetara prosezioan

- **Erref**: BER-166/001
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

**Laburpena**:
Aste Santuan Elgetara joaten ziren prosezioan. Elgetara medikura.

## 31. Ubera erreka eta inguruko errekatxoak; errota izenak

- **Erref**: BER-166/002
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:01:20. **Bukatu**: 00:03:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Ubera errekan egon diren errekak; Elgetatik behera. Errota izenak. Erreka nagusira errekatxo asko heltzen dira.</p>

## 32. Errotarako ura; presa

- **Erref**: BER-166/003
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:03:55. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errotarako ura nondik hartzen zuten. Presa; kanala.</p>

## 33. Gari-joteko makina errotaren indarrarekin zebilen garai batean

- **Erref**: BER-166/004
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

**Laburpena**:
<p>Errotaren historia ez du ongi ezagutzen, baina antzinakoa dela esaten du. Garia jotzeko makinak ere errotaren indarrarekin funtzionatzen zuen.</p>

## 34. Errotako lana; "ur-bolaria"

- **Erref**: BER-166/005
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:07:10. **Bukatu**: 00:09:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

**Laburpena**:
<p>Errotako lana umetatik ezagutzen zuen. Errota martxan dagoenean, ura botatzen du eta beheragو dauden errotek aprobetxatu egin behar izaten dute. "Ur-bolaria". Umeak presako ura zaintzen ibiltzen ziren.</p>

## 35. Presaren garbitze-lanak

- **Erref**: BER-166/006
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:09:15. **Bukatu**: 00:11:30

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Presa nolakoa zen. Harrizkoa. Bete ahala, ehotzeko aprobetxatzen zuten. Zikintzen zenean, estutasun demasak pasatzen zituzten garbitzeko.</p>

## 36. Errotako lana; udazkenean lan ugari izaten zuten

- **Erref**: BER-166/007
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:13:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errekak dakarren uraren arabera, lana egin zezaketen edo geldirik egon behar bestela. Urte-sasoi gogorrena udazkena. Errotarria zikintzen zenerako, intxaur-azalak gordetzen zituzten. Soroan lanean zeudela ere, errotako lana zaindu beharra.</p>

## 37. Errotaren inguruko azalpenak; zati desberdinak

- **Erref**: BER-166/008
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:13:25. **Bukatu**: 00:15:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Natura » Meteorologia

**Laburpena**:
Presako "albatia". Trumoia izaten zenean, ondo zaindu behar izaten zuten ura. 1942an urak gainezka egin zuen. Bi alba-ate zituzten, bat presa bakoitzean.

## 38. Errotaren inguruko azalpenak; zati desberdinak

- **Erref**: BER-166/009
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:19:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Natura » Meteorologia

**Laburpena**:
<p>Errotaren inguruko azalpenak; zati desberdinak. "Albatia" nolakoa zen. Nola zabaltzen zen. Trumoiak jotzen zuenean, estutasuna.</p>

## 39. Presa nagusiko ura, kanaletik sartzen zen errotara

- **Erref**: BER-166/011
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:19:20. **Bukatu**: 00:20:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Soberan zen ura etxe azpitik pasatzen zen. Presa nagusitik errotara zetorren ura, kanalean zetorren. Komuna.</p>

## 40. Ubera erreka, oso aberatsa

- **Erref**: BER-166/012
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:20:50. **Bukatu**: 00:23:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

**Laburpena**:
<p>Errekako ura garbi etortzen zen. Erreka aberatsa: amuarrainak, angirak, karramarroak... Gerora lantegiekin asko zikindu da. Errotako presan ez zen komeni izaten guztiz hustea, bestela zikin asko botatzen zuen errekara. Partaitti-tik datorren errekako ura, "kostra"duna.</p>

## 41. Errotarriak; presa

- **Erref**: BER-166/013
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:23:15. **Bukatu**: 00:24:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errotako presaren altuera. Bi errotarri. Presatik errotarrira ura tubo batetik joaten zen.</p>

## 42. Errotapia; zikintzen zenean barrura sartu behar garbitzera

- **Erref**: BER-166/014
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:24:55. **Bukatu**: 00:27:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errotapia. Beheko erroberak nolakoak ziren. Barrura sartu behar izaten zen garbitzera. Zikinik ez sartzeko zer erabiltzen zuten.</p>

## 43. Soberan zegoen ura etxe azpitik igarotzen zen

- **Erref**: BER-166/015
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:27:00. **Bukatu**: 00:29:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Soberan zegoen ura etxe azpitik joaten zen. Errotaren inguruko azalpenak. Narbaiza bolun bi presak mantentzen dituzte oraindik.</p>

## 44. Errotapea nolakoa zen

- **Erref**: BER-166/016
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:29:55. **Bukatu**: 00:31:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errotapea nolakoa zen.</p>

## 45. Errotako errobera nolakoa zen; katilutxoak zituen

- **Erref**: BER-166/017
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:31:00. **Bukatu**: 00:34:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errotako errobera nolakoa zen. Katilutxoak zituen, urarekin betetzen zirenak. Uraren "kostra".</p>

## 46. Errotaren inguruko azalpenak; errotarriak

- **Erref**: BER-166/018
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:34:25. **Bukatu**: 00:39:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errotaren inguruko azalpena. Goiko harrira lotuta, "palankia". Harria aldatu behar zenean, auzoko baten laguntza behar izaten zuten. "Txoriak".</p>

## 47. Errotarrien inguruko azalpenak

- **Erref**: BER-166/019
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:39:25. **Bukatu**: 00:42:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Errotarriak. Errotaren inguruko azalpenak.</p>

## 48. Errotaren inguruko azalpenak; "askia"

- **Erref**: BER-166/020
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:42:10. **Bukatu**: 00:45:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

**Laburpena**:
<p>"Askia", irina jausten zen tokia. Aleak kajara botatzen ziren.</p>

## 49. Baserritarrek garia zakuetan eramaten zuten errotara

- **Erref**: BER-166/021
- **Iraupena**: 0:05:40. **Hasi**: 00:45:00. **Bukatu**: 00:50:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
Errotako lanari noiz utzi zioten. Errekako ura Bergarara eraman zutenean laga zioten lanari. Aleak "kajara" nola botatzen zituen. Baserritarrek garia zakuetan eramaten zuten. Etxeko leihoan papera egoten zen, zaku bakoitzari marka ipintzeko. Zakuak nola pisatzen zituzten hasieran. Estraperloa.

## 50. Errotariek lanaren ordainean, irin kopuru bat hartzen zuten

- **Erref**: BER-166/022
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:50:40. **Bukatu**: 00:54:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

**Laburpena**:
<p>Behin zakuak pisatu ondoren, irina nolakoa egin erabakitzen zuten. Errotariek gariaren zati bat beraientzat hartzen zuten soldata gisa. Bezeroak. Harriaren garrantzia irina egiteko orduan.</p>

## 51. Errotarriak gastatu egiten ziren; garbiketa lanak

- **Erref**: BER-166/023
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:54:20. **Bukatu**: 00:57:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Harriak gastatu egiten ziren; nondik ekartzen zituzten. Harriak garbitu egin behar izaten ziren. Irina, harriak zituen kanaltxoetatik askara irteten zen.</p>

## 52. Neurriak: anega; imilauna...

- **Erref**: BER-166/024
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:57:55. **Bukatu**: 00:59:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena**:
Neurriak: anega; imilauna...

## 53. Errotan zer ehotzen zuten

- **Erref**: BER-166/025
- **Iraupena**: 0:00:05. **Hasi**: 00:59:55. **Bukatu**: 01:00:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Garia, artoa, garagarra, baba beltza... errotara eramaten ziren ehotzeko. Ganaduen pentsurako "saixa".</p>

## 54. Taloa eta morokila egiteko irina

- **Erref**: BER-167/001
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:45

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena**:
<p>Taloa eta morokila. Arrasatera joan zen lagun batekin irin bila; birrin-birrina eman zieten. Ondoren gaztelu baserrian artoa erosi, Bolintxon eho eta orduan bai jan zituzten morokil onak!</p>

## 55. Arto klaseak: gorria, beltza...

- **Erref**: BER-167/002
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

**Laburpena**:
<p>Arto klaseak. Arto gorria, beltza. Irinak ere desberdinak; kolore iluna edo argiagoa.</p>

## 56. Baserritarrak gari-zorroekin errotara

- **Erref**: BER-167/005
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:07:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

**Laburpena**:
<p>Aixola-errekatik ere etortzen ziren beren errotara. Baserritarrek gari-zorroak astoan eramaten zituzten errotara. Bertan, irina noizko egina egongo zen esaten zitzaien.</p>

## 57. Gariaren inguruko lanak

- **Erref**: BER-167/006
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:07:35. **Bukatu**: 00:08:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

**Laburpena**:
Gariaren inguruko lanak. Gari-azaoak; garia metatu.

## 58. Garia noiz ereiten zen; igitaiarekin ebaten zen

- **Erref**: BER-167/007
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:08:35. **Bukatu**: 00:11:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

**Laburpena**:
Garia noiz ereiten zen. Maiatz inguruan burua irteten zaio. Gari artean zegoen oloa kentzen zen. Garia igitaiarekin ebakitzen zuten.

## 59. Gari-jotzeko makina; gari-kutxak

- **Erref**: BER-167/008
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:11:25. **Bukatu**: 00:14:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

**Laburpena**:
<p>Garia noiz heltzen zen. Gariaren inguruko lanak. Gari-jotzeko makina. Gari-kutxak.</p>

## 60. Ogia egiteko labeko sua

- **Erref**: BER-167/009
- **Iraupena**: 0:04:25. **Hasi**: 00:14:15. **Bukatu**: 00:18:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
<p>Garia kutxetan gordeta egoten zen. Behar ahala, errotara eramaten zuten kopuru bat. Ogia egiteko labeko sua egiten zuten. Ogia nola egiten zuten.</p>

## 61. Neurriak: anega, imilauna...

- **Erref**: BER-167/011
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:20:45. **Bukatu**: 00:21:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Euskara » Lexikoa

**Laburpena**:
Neurriak: anega, imilauna...

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com